



Ref.:

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun Sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

5/2022 INSTRUKZIOA (TLB-3/E-4)

GAIA: Kirol-proba, bizikleta-ibilaldi eta beste ekitaldi batzuetarako baimen bereziak: baimena emateko nahitaezkoak diren aseguruari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. Aldi baterako zirkulazio-baimenak dituzten ibilgailuek ibilgailu motordunekin egiten diren kirol-probetan parte hartzea.

Instrukzio honen helburua da zehaztea nola justifika dezaketen eskatzaileek nahitaezko aseguruak kontratatuta dituztela; eta beste helburu bat ere badauka, ibilgailu motordunekin egiten diren kirol-probetan aldi baterako zirkulazio-baimenak onartzeari buruzko irizpide bat ezartzea.

I.- Baimena emateko nahitaezkoak diren aseguruak izateari eta aseguru horien estaldurei buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

Ekainaren 23ko 6/2006 Instrukzioak ezarri zuen zein irizpideri jarraitu behar zaien Zirkulazioko Erregelamendu Orokorreko II. eranskinean jasotako kirol-ekitaldietarako baimen berezia eskatzeko kontratatu behar diren nahitaezko aseguruari dagokienez. Instrukzio horretan ezarrita daude erantzukizun zibileko aseguruak zein kirol-aseguruak izan behar dituzten estalduren zenbatekoak.

Aseguru horien kontratazioa eta horien estaldurak justifikatzeko, orain arte aseguru-poliza aurkeztu behar zen. Orain erabaki da dokumentazio horren ordez, antolatzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar dela, aseguru horiek eta horien estaldurak kontratatuta dituela adierazten duena.

Erantzukizunpeko adierazpena eskaera-inprimakiaren barruan egongo da, hiru ataletan banatuta. Aseguru mota zein den eta baimena zein probatarako eskatzen den, dagozkion atalak markatu beharko dira.

Hala ere, eskatzaileak aseguru-polizen egiaztatzea aurkeztu beharko du, baldin eta unitate tramitatzailerak eskatzen badio.

Honekin batera doa, eranskin gisa, eskaera-inprimakian sartu behar den Erantzukizunpeko Adierazpenen atala.

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 01 87 44 – Fax 945 01 87 50

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikokoaren** bidez eskuragarri dagoena.



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T4G8X-5VMA

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: SONIA DIAZ DE CORCUERA RUIZ DE OÑA | 2023/03/27 08:16:22

11.- Aldi baterako zirkulazio-baimenak dituzten ibilgailuek ibilgailu motordunekin egiten diren kirol-probetan parte hartzea.

Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren 55. artikulua aurreikusten ditu ibilgailu motordunekin egiten diren kirol-probak. Proba horiek zirkulaziorako itxita dauden bideetan zein zirkulaziorako irekita daudenetan egin daitezke. Bestalde, Ibilgailuen Erregelamendu Okorrrak ezartzen du ibilgailu motordunek zirkulatu ahal izateko zirkulazio-baimen administratiboa lortu behar dutela.

Ondorioz, ibilgailuek, zirkulazio orokorrerako irekita dauden bideetatik ibilgailu motordunekin egiten diren kirol-probetan parte hartu ahal izateko, behar bezala matrikulatuta egon behar dute eta aurretik dagokien zirkulazio-baimen administratiboa lortu behar dute.

Hala ere, kontuan hartzen bada, batetik, horrelako ibilgailuek (lehia-ibilgailuak) ezaugarri bereziak dituztela; eta bestetik, trafiko arloko eskumena daukaten beste agintaritza batzuek onartzen dutela ibilgailu horiek ibilgailu motordunekin egiten diren kirol-probetan aldi baterako zirkulazio-baimenekin parte hartzea; komeni da lehia-ibilgailuak zirkulazio orokorrerako irekitako bideetan aldi baterako-zirkulazio-baimenekin parte har dezatela eta, hala badagokio, zirkulatu dezatela onartzea kasu hauetan:

- Motordunen rally motako kirol-probetako lotura-tarteetan. Lehia-ibilgailuak ibilgailu motordunekin egiten den rally motako kirol-proba batean behar bezala inskribatuta badaude eta proba organo eskudunak baimendu badu, probak dirauen bitartean zirkulatu ahal izango dute:
 - zirkulazio orokorrerako irekita dauden lotura-tarteetatik eta,
 - zirkulazio orokorrerako itxita eta kronometratuta dauden tarteen artean, eta
 - zirkulazio orokorrerako irekita dauden eta baimenean behar bezala jasota dauden tarte edo ibilbideetatik:
 - zirkulazio-arauak errespetatuta eta logistia eta rallyaren antolaketa errazteko moduan.

- Ibilgailuaren egoitzatik motordunen rally motako kirol-probara joateko zirkulatzea: lehia-ibilgailuek, organo eskudunak baimendutako ibilgailu motordunen rally motako kirol-proba batean inskribatuta badaude (edozein modalitatetan), beren ohiko egoitzatik kirol-proba egiten den lekura zirkulatu ahal izango dute zirkulazio orokorrerako irekita dagoen errepidetik, egiaztapenekin hasi baino 48 ordu lehenago. Irizpidea bera izango da proba egiten den lekutik ohiko egoitzara itzultzeko, amaierako sailkapena argitaratzen denetik 48 ordura arte.
 - o Agintaritzako agenteek egiaztatze-lanak errazago egin ahal izan ditzaten: antolatzaileak edo automobilismo federazioak (Euskal Autonomia Erkidegokoa edo proba egiten den lurraldekoa) aldi baterako zirkulazio-baimena duten lehiaketako ibilgailuetarako egiaztagiri bana egingo du eta horretan adieraziko dira ibilgailua behar bezala inskribatuta dagoela eta proba horri buruzko datuak (probaren lekua, eguna eta ordua). Dokumentu hori gidariak aurkeztu beharko du, agintaritzako agenteek eskatzen badiote.

Oro har, ibilgailu motordunen kirol-probaren edo –ekitaldiaren antolatzaileak gorde behar du eta, hala badagokio, agintaritzako agenteei erakutsi beharko die behar bezala inskribatuta dauden lehiaketako ibilgailuen zein ibilgailu horien gidarien zerrenda.

Instrukzio honek ondorioak izango ditu sinatu eta hurrengo egunetik aurrera.

Sonia Díaz de Corcuera Ruiz de Oña
TRAFIKOKO ZUZENDARIA

Eranskina

Erantzukizunpeko adierazpenak

Erantzukizunpeko adierazpen batean edo komunikazio batean jasotzen den datu edo informazioen bat zehaztasunik gabea edo faltsua bada edo aurkeztu ez bada, edo administrazio eskudunari ez bazaio aurkezten erantzukizunpeko adierazpena, edo deklaratzeko dena betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa, edo komunikazioa, ezinezkoa izango da dena delako eskubidea baliatzen edo jardueran aritzen jarraitzea, egitate horren berri izaten den unetik bertatik aurrera, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

Eskatzaileak erantzukizunez hauxe deklaratzeko du:

- Indarrean dagoen araudiak* ezarritako betekizunak betetzen ditu.
- Eskabide honetako datu guztiak osorik daude eta egiazkoak dira, baita aurkezten den dokumentazio guztia ere, eta dagokion erantzukizuna bere gain hartzen du (Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.7 artikulua).*

Nahitaezko istripu-aseguruaren eta erantzukizun zibileko aseguruaren estaldurei buruzko erantzukizunpeko adierazpena.

- Proban parte hartzen duten guztiak istripu-aseguru bat dute eta aseguru horrek nahitaezko kirol-aseguruaren araudian ([ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretua](#)) ezarritako estaldurak ditu (ez da eskatuko ibilgailu historikoekin egiten diren ekitaldietarako).
- Proban parte hartzen duten guztiak erantzukizun zibileko aseguru bat dute eta aseguru horrek hirugarrenei eragiten zaizkien kalteak estaltzen ditu, 6/2006 Instrukzioak kalte material eta pertsonaletarako ezartzen dituen muga berberetara arte.
- Ibilgailu motordunekin egiten diren probetako gidariek erantzukizun zibileko aseguru dute, baldin eta proba horiek egiteko diren edo proba horiek egiteko prestatu diren zirkuituetan egiten badira; eta aseguru horrek arau honetan ezarritako zenbatekoak estaltzen ditu: [8/2004 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 29koa, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioko Erantzukizun Zibilar eta Aseguruari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena](#).

Ertzaintzaren zerbitzu berezien ondoriozko tasatik salbuetsita egotearen erantzukizunpeko adierazpena (1/2007 Leg.Dekretua)

- Administrazio publikoa
- Fundazioa formalki osatuta eta erregistratuta dago, interes orokorreko helburuak ditu xede, eta ekitaldia antolatzeagatik lortzen dituen diru-sarrerak entitatearen xedea edo helburu estatutarioak betetzera bideratzen ditu.

- Elkartea erabilera publikokotzat jota dago, formalki osatuta eta erregistratuta dago, interes orokorreko helburuak ditu xede, eta ekitaldia antolatzeagatik lortzen dituen diru-sarrerak entitatearen xedea edo helburu estatutarioak betetzera bideratzen ditu.
- Boluntarioen elkartea da, formalki osatuta eta erregistratuta dago, interes orokorreko helburuak ditu xede, eta ekitaldia antolatzeagatik lortzen dituen diru-sarrerak entitatearen xedea edo helburu estatutarioak betetzera bideratzen ditu.
- Irabazi asmorik gabeko kirol-federazioa da, ekitaldia publikoarentzat dohainik da eta babesletzen edo beste kontzeptu batzuen bidez (esaterako, izen-emate kuotak edo beste batzuk) lortzen duen etekina ez da antolaketa-gastuak baino handiagoa izaten.
- Irabazi asmorik gabeko kirol-entitate asoziatiboa da, ekitaldia publikoarentzat dohainik da eta babesletzen edo beste kontzeptu batzuen bidez (esaterako, izen-emate kuotak edo beste batzuk) lortzen duen etekina ez da antolaketa-gastuak baino handiagoa izaten.
- Irabazi asmorik gabeko kirol-kluba da, ekitaldia publikoarentzat dohainik da eta babesletzen edo beste kontzeptu batzuen bidez (esaterako, izen-emate kuotak edo beste batzuk) lortzen duen etekina ez da antolaketa-gastuak baino handiagoa izaten.